

Eder auen aurrean gure umeak antsi,
amaren magal barru. begi-ñirñir, garrasi;
Josu izar-kontaka berriz zaigu asi,
eta Mikel loak du poliki eratsi.

Beude, bada, kirkil ta ontz kanpoan uluz;
orobat, esker onak biarko luzatuz,
goazen gu lotara; lo-atsedena artuz,
biar ere lanari ekiteko buruz.

IZADIA BAI EDER!

*Maiatza dugu d'etan Azi miña nunnai. Etxaldea
osoz daukat orlegi. Bizi-guraz gaiñez dagite mendi, aran eta
zelaiak. Egazti ta txoriak ere ez dute goibel-ixurkirik. Usa
egaleko muskerra, luzez arri zirkuan egona, iratzartu zaigu,
ta mutur biurria ager-azi. Nik badut zeregiñik asko.*

Doifiu: «Zubietako neskatxentzat,..».

(Azkue, I:;:11 tu temi a, 547-garrena).

Izadia bai eder! Beti doa aitzina
ernez, aziz, ugalduz xotil ta gordina.

Etzaigu, ez, zikoitza (1), esku-gizen baizik,
giza-lera makurra maiz piper utzirik.

Gizonaren lana, bai, diru-jokuak du
iruzur ta gezurrez askotan marroiztu (2).

(1) Zeken.

(2) Pirtxildu.

Lurrak gurago luke, maiatza eredu,
deduzko giza-lanez aurrera bultzatu.

Nik maite dut nere lur sail zoragarria,
birloraz (3) beti dakust etxalde ezta.

Sakosta (4), soro, zelai, muiño ta mendiak,
sorgortua dakuskit ditudan guztiak.

Neronek landatua dut masti goiztua,
ta muna barreneko sagasti arrua.

Igaz aldatu nitun igali zugatzak
lerden, indartsu datoz, uztartuz ardatzak (5).

Geroak ederrago dizkit ikusiko,
urtez urte dira-ta lerdanagotuko.

Azkartuz dijoaz gaur kukula eskergak,
ezker-eskubi azi direan besangak.

Ondotzar orrek barne, lurpean ikusgaitz,
ereillearen sena darama geldigaitz.

Izadia bai eder! Beti doa aitzina
ernez, aziz, ugalduz xotil ta gordina.

-
- (3) Zauskada.
(4) Aitz-arte.
(5) Kimu.